

GAIA AZALDU ETA IRITZIA EMAN

Jarraibidea: 20 minutu dituzu testua irakurri eta gai honen garapena prestatzeko. Ondoren, 5 minutu izango dituzu gaia ahoz azaltzeko.

Kontzertu-sarreraren merkatu ezkutua

Julen Figueras



Kontzertu-sarreraren merkatuak uste baino irabazi handiagoak ematen ditu. Birsalmentaren aitzakia aprobetxatuz, negozio-kate honetan parte hartzen duten guztiek irabaziak biderkatu dituzte azken urteotan, musika zaleok geroz eta prezio altuagoak jasaten ditugun bitartean.

Eta egia da: inork ez du diskorik erosten egun. Musika ogibide duen edozein artistak badaki grabazioetan irabazi ohi den dirua orain kontzertuetan dagoela. Azken bi hamarkadetan musika grabatuaren irabaziak % 50 murriztu diren bitartean, kontzertuenak seikoiztu egin dira.

Urtero, kontzertu txiki zein handitan, dirutza gastatzen dugu sarreratan. Hala, azkenengo urteetan, eta teknologiaren aurrerapenaz baliatuz, beren negozioa zabaltzeko aukera ikusi dute birsaltzaileek, 'reventa' deiturikoek.

Bigarren mailako merkatua

Egun, 'bigarren mailako merkatua' deitzen zaio, nahiz eta, funtsean, betidaniko birsalmenta den, hau da, sarrerak jatorrizko prezioan erosi eta bere bikoitz edo hirukoitzean saltzea. Baditu birsalmenta honek, halere, betiko amarruak berritzen dituzten elementu batzuk.

Gure gurasoen garaian ez bezala gaur egun, norbaitek programatu duen boot izeneko makinek egiten dute lan lasterra. Zuk edo nik sarrera pare bat erosterako, munduko edozein lekutatik kontrolaturiko programa hauek ehunka erosteko astia izan dute. Boot horiei esker, sarrerak minutu batzuetan agortu eta, hori gertatu bezain laster, ehunka aurkituko ditugu bigarren-mailako-merkatu horretan.

Egoera honen aurrean, sarrera-salmenta konpainiak eta interesa jarri duten politikariak irtenbide bila ari dira. AEBetan, adibidez, legea aldatzeari ekin diote, eta orain isunak inoiz baino gogorragoak izango direla adierazi dute. Tamalez, birsalmentaren mafia uste baino korapilatsuagoa da.

Gaztezulo, 2019/07/15 (Laburtua eta moldatua)

Gaia prestatzeko: zein dira testuan ageri diren datu edota ideia nagusiak? Zuk zein ideia azpimarratuko zenituzke?

Eman gaiari buruzko iritzia:

- Kontzertuak eta antzekoak ikusteko sarrerak aurrez erosteko ohiturarik baduzu? Non erosten dituzu?
- Sarrera horien birsalmartarekin negozio ezkutua dagoela uste duzu? Zein dira arrazoiak?
- Zein dira negozio honen onuradunak eta kalterik handiena jasaten dutenak, zure ustez?
- Arazo honi aurre egiteko irtenbide bat aipatu da testuan. Neurri eraginkorra dela uste duzu? Bestelako irtenbiderik ikusten duzu?

HIZTEGI LAGUNGARRIA:

Kontsumitzaileok sarreren prezio justua **ALDARRIKATU** behar genuke= Eskatu

Kontzertu-sarrera horien legezkotasuna **AUZITAN JARRI** dute = Zalantzan jarri.

ALDERATUTA = Konparatuta.

JATORRIZKO prezioa = **BEREZ** duen prezioa. **HASIERAKO** prezioa.

Zenbait abeslariaren kontzertuek **IKUSMIN** handia sortzen dute= Ikusteko gogoia.

IRUZURRA saihesteko erosketa masiboak kontrolatu behar lirateke= Engainua, amarrua.

Engainua **SAIHESTEKO**= Ekiditeko, alboratzeko.

Ideia lagungarriak:

- Kontzertu-sustatzaile batzuek prezio ofizialak igo beharrean sarreren kopuru handi bat beren kabuz saltzen dute birsalmartan.
- Birsalmartak artistari ere zuzenean eragiten dio, erabiltzaile askok uste baitute prezio hori beraiek ezarria dela.
- Eusko Jaurlaritzako segurtasun sailak abian jarritako prebentzio kanpainaren bidez iruzurrezko salmentak gutxitzea lortuko genuke.
- Birsalmarten jarduera arautu beharko litzateke sarreren prezio justuagoak lortzeko eta kontsumitzaileon eskubideak babesteko.

Gai honi lotuta, Ikasbil atariko beste hainbat material:

2172639 [Kultura garestia da?](#)

2173056 [Kulturaren prezioa](#) Bideoa

Beste erreferentzia batzuk:

[Sarreren bigarren bizia mugatu nahian](#)

[Interneteko birsalmarta auzitan](#)